


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ATEGORRIETA ETORBIDEA 3



Egilea eta data: Luis Elizalde; 1919

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, erdisotoa, bastardea eta jatorrizko sei goi oin (azkena, atzeraemana, soilik Ategorrieta etorbiderantz proiektatua zegoen) dituena. 1920an jasodura atzeraeman bat proiektatu eta eraiki zen Jose Maria Soroa kalerantz, eta profila bi aldeetara berdindu zen. Fatxada harlanduak, estaldura zeramikoak eta mosaikoak dituztenak (5. oina Ategorrietara). Hormigoizko begiratoki eta galeria gainjarriak Ategorrieta etorbiderako fatxadaren ertzeko alboetan, eta Jose Maria Soroa kalerako fatxadaren ezker alboan. Konposizioan, apainduran, sekzioan, egiletzan eta datan antza Ategorrieta 5ekin.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra:
 - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 6. oin atzeraemana.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; mosaikoak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.